

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

**DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL**

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Munduko Hezeguneen Egunaren ospakizunarekin bat egingo du otsailaren 2an Jauregiaroztegira (Auritz) egingo duen bisitarekin

Hezegune horren azterketa, era horretako guneak kontserbatzeko eta hobetzeko LIFE Istringa Europako proiektuaren barnean dago

Jueves, 24 de enero de 2013

Otsailaren 2an Munduko Hezeguneen Eguna ospatuko da, Hezeguneak eta uraren erabilera lelopean, uraren menpekotasun artekoari eta hezeguneei buruz pertsonen sentsibilizazioa sustatzeko xedearekin, bai eta baliabideak jartzea inplikatu guztiek baliabide hori zuzen parteka dezaten, hezegunerik gabe urik ez baitago.



Auritzeko Jauregiaroztegiko hezegunea.

Egun hori NBEak 2013. urte hau "Kooperazioaren nazioarteko urtea uraren esferan" izendatu izanarekin batera dator, eta Nazioarteko Garrantzia duen Hezeguneei buruzko Konbentzioak antolatuta dago (Ramsar-ko Konbentzioa); gobernu arteko ituna da eta hezeguneen kontserbazioaren eta haien baliabideen arazoizko erabileraren alde lan egiten du.

Duela hamar urtetik, Nafarroako Gobernuak ospakizun horrekin bat egiten du Nafarroako hezeguneak ezagutzeko programaren bitartez. 2013ko edizio honetan, egun horretarako Jauregiaroztegiko Lingara bisita gidatua egingo da, Auritzen. Txangoa Iruñetik abiatuko da (Tres Reyes hotela) 09:30ean, eta 18:00ak alderako itzultzea iragartzen da. Gainera, Ariztokiko behatokitako bisita egingo da. Txangorako izena emateko, 10 euro balio duena (ez dira hamaiketako eta bazkaria sartzen), 948 15 00 12 telefono-zenbakira deitu behar da, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko epea urtarrilaren 31n amaituko da.

Jauregiaroztegi
Nafarroako eremu atlantiko-
pirinioetako hezegune
garrantzitsuenetakoa da. 10
bat hektareatako sakonune oso
leuna da, pagadiez
inguratutako larre eta zelaiez

osatuta dagoena. Nafarroan interes berezia duten flora-
espeziak daude bertan, Triglochin palustris, Menyanthes
trifoliata eta Sanguisorba officinalis, esate baterako.
Nafarroako udalerrri gutxik dituzten hezeguneetako landare
propioak dira eta kaltebera handikoak beren habitatak aldatuz
gero.



Jauregiaroztegiako flora higrofiloa.

Bestalde, hainbat intsektu ugaltzeko leku egokia da, eta haien artean lepidopteroak eta odonatoak nabarmendu behar dira. Jauregiaroztegiako hezegunea, bere kokapenagatik eta habitat-dibertsitateagatik (zelai hezeak, heskaiak...) hegazti migratzaileentzat atsedeneku eta elikatzeko baldintza egokiak ditu.

[La Caixarekin sinatutako hitzarmen baten](#) bidez azken bi urteotan berreskuratutako hezegune hori, gainera, azterketa eta berreskuratzeko xede da LIFE Istinga Europako proiektuaren barnean; hark bilatzen du, Iberiar Penintsulako iparraldeko hezegune kontinentalei lotutako komunitate-intereseko zenbait habitat-nahiz espezie-motaren kontserbazio-egoera hobetzea eta beren biziraupena bermatzea.

Auritzera programatutako irteeran, LIFE Istinga proiektua aurkezteko ekitaldia egingo da; proiektu horrek berariaz Nafarroako zonalde atlantikoari lotutako zohikaztegi gune eta habitaten kontserbazio-egoera aztertu eta hobetuko du.

Proiektuaren barnean sartzan dira informatzeko eta gizartea sensibilizatzeko ekintzak hezeguneek eskaintzen dituzten balio eta zerbitzuen gainean. % 50ean Europako funtsekin finantzatuta dago eta Nafarroan bazkide nagusia Nafarroako Gobernua da, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren bitartez eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA sozietate publikoaren bitartez.